




DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA



AURKIBIDEA

¿**Zer** da HaURBANistak / URBANKidoos?

ZERGATIK parte hartu?


NORENTZAT da?

NON egingo da?

NOLA egingo da?

NOIZ?

HAR DEZAGUN PARTE!



¿Zer da HaURBANistak / URBANKidoos?

Haurrekin egiten den hirigintza parte hartzailea bultzatzeko proiektua da.

2012. urtean sortu zuen [Maushaus](#)-ek, [Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua Bulegoaren](#) laguntzarekin. **HaURBANistak** Donostiako ikastetxeei zuzendutako proiektua da eta arkitekturari, arteari eta hirigintzari buruzko jarduerak proposatzen ditu, irakasleek eta ikasleek parte har dezaten hiriaren ezagutzan eta diseinuan.

Ekimen honen helburua da haurren begiradari aukera ematea, haien nahiak bistaratzea eta parte hartzeko tresna eta bide egokiak eskaintzea, hiriko aukera berri eta imajinatu gabe horiek azalertzeko.

Aurreko bi deialdien ondoren (2012-2013 eta 2013-14), 2015-16 deialdia zabalduko dugu orain. Ikasturte honetan eduki gehiago izango ditugu, ikasitakoa finkatuko dugu eta oinarriak jarriko ditugu proiektuak denboran iraun dezan.



Donostia, can you hear us?, 2012-13 deialdia. Hiriko 6 ikastetxek hartu zuten parte.



HAURBANISTAK!!!, 2013-14 deialdia. 11 ikastetxek eta 600dik gora haurrek hartu zuten parte.

Aurten, Donostia 2016 kultur programaren barruan garatuko da proiektua. 2015-16 ikasturtea abiatzean hasiko dira proposatutako jarduerak.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA



ZERGATIK parte hartu?

Inguru batean, sormenaren giza ekintzen aurrean, modu sentiberan moldatzeko aukera ematen diguna da arte eta kultur hezkuntza. Arteak, berez, ofizio teknikak besterik ez dira, eta teknika horiek ikasi eta bultza ditzakegu ondo ezagutzen baditugu.

Ikasketa planen ildo ez eta haien eskumeneko esparruez haratago, arte-teknika horiek ikasteak eta horrek dituen emaitza praktikoez eta estetikoek, eskola adinean alferrikakoak badirudite ere, gazteen heldu bizitarako irudimena eta sentsibilitatea garatzen laguntzen dute.

Garrantzitsua da arteetan murgiltzea eta haurtzaroan ikastea, bizitzan erabat gozatzeko. Haurrek sortu egin behar dute eta eragina izan behar dute beren inguruan edo inguruan dituzten esparruetako batzuetan, gero beren bideak eraiki ahal izateko.

Baina ez dugu bakarrik arte mailan lan egingo, hiriaren alderdi teknikoak ere aztertuko ditugu, hobeto ulertzeko eta egiteko modu berriak proposatzeko.


Hirigintza modernoak izugarriko eragina du gure bizitzetan. Hala bada, hiriak aire zabaleko lekuak ziurtatu behar dizkie haurrei, beren esperientziak garatu ahal izateko eta beren talentuak garatu eta erabiltzeko.

Hiriak eta bere lurraldeak ibilgailuen trafikoari leku egiten dioten heinean, hiri hori bere formak hartzen hasten da, edo forma galtzen bere azpiegituren eraketarekin. Ibilgailu batek duen hiri sekuentzia azkarra, guztiz urrun dago oinezkoak duenetik, eta hiri azpiegitura horiek jartzen dizkieten oztopoak saihestu behar ditu gainera.

Gaur egungo hiriek ibilgailuen fluxua diseinatzen dute lehenetsun gisa, erdibitzaile, biribilgune, panel eta gainerako parafernaliaz beterik; horiek, ordea, ez dute inolako zerikusirik hiriko erabiltzaile txikiekin, pertsonekin, eta inoiz ez dute erabat konpontzen ibilgailuen trafikoaren makurra. Ahaleginduko gara, bada, espazio horiek geureganatzen eta pertsonentzako ez-leku horietarako beste erabilera batzuk proposatzen.

HaURBANistak proiektuarekin lortu nahi dugu:

- > Harremanetan jartzea hiriaren hirigintza egiturarekin eta sortze mekanismoekin.
- > Lekuan bertan hiri konplexutasuna aztertzeko eta zuzenean behatzeko gaitasuna praktikan jartzea, hiriri buruz iritzi kritikoa emateko eta kontzientzia izateko alde aurretiko baldintza gisa.
- > Ikasleak krisia kudeatzeko prestatzea, gauzen etengabeko aldaketak eraginda.
- > Hiri ekologiararen irakaskuntzarekin lotutako hezkuntza modu berriak sakondu edo aztertu nahi dituzten irakasleei espazio harrigarri bat eskaintzea eta babestea.



NORENTZAT da?

Lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako eta bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzat da proiektu hau.

Adin bakoitzera egokitutako jarduerak planteatuko dira ziklo bakoitzean, hezkuntza curriculum programa aintzat harturik.

- Lehen hezkuntzako 2. zikloa: 8 - 9 urte.
- Lehen hezkuntzako 3. zikloa: 10 - 11 urte.
- Bigarren hezkuntzako 1. zikloa: 12 - 14 urte.



NON egingo da?

Donostiako lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan gauzatuko da proiektua.

Bere eraikina dagoen auzoaren inguruan lan egingo du ikastetxe bakoitzak, eta horri esker, **haurren proposamenak bilduko dituen hiri puzzle** baten bidez, gure hiriaren beste ikuspegi bat izango dugu.

Aurten, Europako kultur hiriburutza bikoitza dela-eta, parte hartzen duten ikastetxe guztietatik bat aukeratuko da **Wroclaw**-ko ikastetxe batekin **kultur truke birtuala** egiteko. Internet bidez konexioak egingo dira eta bi herrialdeetako haurrak konektatu ahal izango dira eta beren proposamenak azaldu ahal izango dituzte.



NOLA egingo da?



Parte hartzen duen ikastetxe bakoitzari beharrezko material didaktikoak helaraziko zaizkio, urritik apirila bitarte, era autonomoan halako azterketa, gogoeta eta sortze tailerrak egiteko, ikastetxea dagoen auzoko arkitekturaren, espazioen eta bizitzeko moduaren inguruan.

Parte hartzen duten eskoletan egindako tailerretan sortutako materialekin erakusketa bat egingo da 2015-16 ikasturte bukaeran, eta egindako lanak eta izandako esperientziak bertan erakutsi ahal izango zaizkie parte hartzaile guztiei eta proiektua hobeto ezagutu nahi duten pertsona guztiei.

Maushaus-ek bitartekari lanak egingo ditu edukiak eskoletara helarazteko, egungo hirigintzaren inguruan arte ekintzak garatzen lagunduko du, eta horrekin batean ikastetxeetako ikasleek jakinduria berriak eraikiko dituzte eta iritzi kritikoa emango dute. Horri esker, mundua bere aniztasun osoan ulertu ahal izango dute etorkizun hurbilean.



Oraingoan, **HaURBANistak** proiektuak **hiru ekintza edo jarduera** izango ditu, proposaturiko adin desberdinetara egokituak. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du zein ekintzatan lan egin nahi duen eta zenbat ikaslek parte hartuko duten. Ikastetxeek nahi adina jarduera egin ahal izango dituzte, baldin eta jarritako epeetan izena ematen badute.



1. JARDUERA.- Donostia, entzun gaitzakezu? / Donostia, can you hear us?

Gomendatutako adina: 8-11 urte (lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloak)

Aurreko bi deialdietan egindako jarduera.

Ikastetxea dagoen auzoa aztertzeko eta proposamenak sortzeko jarduera. Maketa hartuko da lanerako oinarri gisa eta eskalan eraikiko da; haurrek hirian duten papera bistaratzen ahaleginduko gara, haien beharrak eta ametsak jasoaz, etorkizunari aurpegia eman behar dion Donostia baterako. Horretan, galdera orientagarrien joko batek lagunduko digu, hiriko gai sentiberen inguruko galderak izango dira, edo beharbada, hipotesi bitxiak egingo ditugu haurren irudimena askatzen laguntzeko, bizitzako testuinguruei eta etengabeko aldaketei buruz hainbat mailatan gogoeta egiteko orduan.



Emango diren materialak:

> Hezkuntza dosierra.

> Maketaren oinarria 1/500 eskalan, planoak eta materialen poltsa.

Linkak aurreko deialdien argazkietara::

> 2012-13

> 2013-14

2. JARDUERA.- Zubiak/ Bridges

Gomendatutako adina: 10-11 urte (lehen hezkuntzako 3. zikloa)


Gure hiria egituratzen duen ibaiaren inguruko jarduera. Ariketa bat proposatuko dugu Donostiako elementu bizi horren inguruan eta auzoak elkartzen dituzten eta hirian komunikatzeko eta ibiltzeko aukera ematen diguten zubien inguruan. Urumea ibaiak, definizioz, munduko ibai guztiek bezalaxe, badu jatorria eta badu bokale bat. Arrazoi horregatik, bi ertz eratzen ditu. Horregatik aipatuko ditugu beti ibaiaren eskuinaldea eta ezkerraldea.

Zubiak, pertsonentzako igarobideak bezalaxe, modu egokiak dira ibai bat zeharkatzeko, elkartzen duten elementuak dira horiek, baina ... espazio gisa hartzen baditugu, zer?



Ibaia kale gisa eta zubia elkartzeko espazio gisa. Zubiak forma berriak hartzen ditu espazio gisa hartzen badugu. Aski da Ponte Vecchio ikustea, Firenzen, zubien inguruan erabilera eta ikusmolde desberdinak irudikatzen. Gazteei proposatzen badiegu eurek irudikatzen dituzten ekintzak egin ahal izateko espazio gisa hartzeko zubiak, ziur lortuko ditugula zubi imajinaezinak: jolasteko zubiak, arrantza egiteko zubiak, maiteminduentzako zubiak...

Zubiak ariketarekin, animatu egin nahi zaituztegu zuba autoen igarobide gisa ulertzeko ideia baztertera eta zubi jatorriko igarobideak imajinatzen, pertsonak beren bizitzan haiekin gozatzeko. Era berean, saiatuko gara zubien kontzeptua pertsonak elkartzeko eremu gisa lantzen, distantzia fisikoak edo kulturalak* egon arren.



Emango diren materialak:

- > Hezkuntza dosierra.
- > Planoa eta materialen poltsa.


*Aldi berean tailerra egingo da Wroclaw-eko (Polonia) ikastetxe batekin eta Donostiako batekin. Bi hiriak, duten kultura eta jendea ezagutzea. Análisi eta jolaserako ariketak. Konexioak internet bidez ikasleek elkar ezagutu dezaten, komunika daitezzen eta beren proposamenak azal ditzaten. Konexio zubi bat egingo dugu, birtuala eta gero fisikoa, maketa moduan.
Hizkuntza: Ingelesa.

3. JARDUERA.- Bizitza eraikinen artean/ Life between buildings

Gomendatutako adina: 12-14 urte (bigarren hezkuntzako 1. zikloa)

Hiria ez da goitik soilik pentsatu behar, biztanlearen ikuspegitik ere pentsatu behar da, gizakiaren eskalaren faktorea aintzat hartuta. Era honetan, mapa "sentsorialen" bidez ibiliko gara eguneroko bizitza egiten dugun hirian zehar, eraikinen artean, inguru hurbila ulertuz. Planoak eskaintzen dizkigun bi-dimentsioetan lehenbizi, gero guk espazioan dugun kokalekua ezagutzeko.

Ariketa honetan arreta berezia emango diogu mintzagai dugun espazio horretan dauden gauzen pertzepzioari, soinuei, landa lanari eta lekuarekiko elkarreraginari. Hirian lo dauden espazioei erreparatuko diegu, itxuraz bederen berriazko erabilerarik ez dutenei edo aldatu daitezkeenei.



Begiak ondo zabalduko ditugu hiriko ez-leku horien aurrean eta eskas diseinatuta dauden eremuak dituzten hirigintza aukera handietara bideratuko dugu haurren arreta.

Jarduera honetan parte hartzaileek ikus-entzunezko teknikekin eta argazki-collageekin egingo dute lan. Gure arte ekintza txikiekin saiatuko gara baztertuta utzi diren leku desegoki horiek hiriri itzultzen, hiri ilusioa berreskuratzeke, hiri esanahia itzultzeke eta, azken batean, guztiontzat bizitzeko egokiagoa izateke.

Emango diren materialak:

- >Hezkuntza dosierra.
- >Planoa eta materialen poltsa.

Honako 5 URRATS hauek jarraitzen dituzte hiru jarduerak:

ANALISIA – GOGOETA – ALDAKETA – EBALUAZIOA – ERAKUSKETA KOLEKTIBOA

Analisia: Aztertu behar dugun eremuaren inguruko analisiarekin hasiko gara. Beste begi batzuekin begiratuko dugu eta gure inguruan lehen behatu ez ditugun alderdiei erreparatuko diegu.

Gogoeta-Sortzea: Hipotesi edo ildo batzuen inguruan gogoeta egingo dugu, lehenengo bakarka eta gero taldean, eta ondoren, gure inguruan aldaketa bat proposatuko dugu, hartan hobekuntza bat sartu ahal izateko.

Aldaketa: Planteatu diren proposamen guztien artean, ikasleek, irakasleen laguntzarekin, haietako bat aukeratuko dute aurrera eramateko. Dauden baliabideen arabera, ekintza handia ala txikia izan daiteke, sinbolikoa agian, baina aurretiko analisiaren eta gogoetaren ondoren aldaketa bat eragingo duena betiere.

Ebaluazioa: Batzuetan ekintzek eragin positiboa izaten dute hauek ahalbideratu dituzten pertsonen artean, baina aldaketa gozaten duten pertsonengan? Guztion artean, berriro ere, geure buruari galdetuko diogu ea aldaketa hori positiboa izan den gauzatu den inguru horretan.

Erakusketa kolektiboa: Parte hartu duten ikastetxe guztiek beren lanak erakutsiko* dituzte 2016ko maiatzean, parte hartzaileek nahiz ikusleek ikus ditzaten haurrek ikasturtean zehar egindako proposamenak.

* Irailean erabakiko da erakusketa non egingo den.



NOIZ?

- **Ekaina:** Proiektua ikastetxeei aurkeztuko zaie eta programan izena emateko epea irekiko da.
- **Irailak 10ean** bukatuko da proiektuan izena emateko epea.
- **Urria:** Ikastetxeetara bisitak egingo dira proiektua aurrera eramateko beharrezko materialak eramateko.
- **Azaroa-apirila:** Proiektua ikastetxeetan garatuko da.
- **Apirila:** Materialak bilduko dira.
- **Maiatza:** Erakusketa Kolektiboa egingo da.




HAR DEZAGUN PARTE!

Proiektuan parte hartu nahi duten ikastetxeek emaila bidali beharko dute honako helbide honetara:

haurbanistak2016@maushaus.info

Zein jardueratan parte hartu nahi duten adieraziko dute mezu horretan, eta baita zenbat haurrek parte hartuko duten ere, 2015eko urrian ikastetxeetara egingo diren bisitaldietan banatu beharreko materialak aurreikusi eta antolatzeko.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA

